

Otxantegi Herri Lurra hustu du Ertzaintzak

HODEI TORRES · IKER RINCON MORENO :: 07/05/2024

Indar erakustaldi handi batez, hirugarren saiakeran, Berangon okupatutako lursailak hustu dituzte, pertsona bat atxilotuz eta beste bi zaurituz.

"Milioika euro balio duen proiektu urbanistiko" bat geldiarazteko eta Otxantegi Herri Lurra izeneko egitasmoa agroekologikoa martxan jartzeko asmoz, Otxandategi dorretxea eta haren lursailak okupatu zituzten 2022an. Bi urte beranduago, hutsarazte saiakera bi egin dituzte epaitegien aginduz, baina Ertzaintzaren "baliabide nahikorik" ez zituztela esanez, birritan atzeratu zuten hustuketa, azaroan eta apirilean.

Atzo, ordea, izugarritzko baliabideakaz agertu zen Ertzaintza, eta goizean goizetik aritu zen ingurua desalojatzen. Sarreran babesa ematera hurbildutako kideak kanporatu zituzten agenteek lehenengo, eta lurak eta dorretxea defendatzen ari zirenak gero. Kanpoan, ekintzaileek eserialdia egin dute, "erresistentzia baketsua" egin guran; horiek banan-banan kanporatu zituzte, baita identifikatu ere. Ondoren, Ertzaintza dorretxera sartu zen mailuen bidez, eta bertan gotortuta zeudenak kaleratu zituzten, teilatukoak baita ere. Azkenik, 13:00ak aldera, sarrerako egurrezko egituraren eskegita zegoen ekintzailea jaitsi eta identifikatu zituzten. Ekintzaile guztiak kanporatuta, sarraileak sartu ziren ingurua ixteko. Guztira, 40 pertsona baino gehiago identifikatu ditu Ertzaintzak, desobedientzia egotzita.

Ekintzaileek ohartarazi dutenez, eserialdian eta barruan gotortuta zeudenek "mehatxu psikologiko handiak" jaso dituzte polizien partetik, eta kazetaririk ez zegoela aprobeztatuta ertzainek erabilitako biolentzia salatu dute, "jendea kolpatzen aritu dira etengabe". Hala eta guztiz ere, nabarmendu dute, kanporatu zituzten arren, lurraren espekulazioaren kontra "borrokatzen" jarraituko dutela. Era berean, gerturatutako herritarren babesa ere eskertu dute, eta "beste estrategia" batzuk erabilita "etxebizitza proiektu espekulatzailerari" aurre egingo diotela iragarri dute.

Horrez gainera, ekintzaileetako batek zitazio judizial bat jaso du eta, dirudienez, epaiketa du zain, proiektu urbanistikoa atzeratzearen arduradun gisa.

<https://hiruka.eus/berango/1715077610585-otxantegi-herri-lurra-hustu-du-ertzaintzak-eta-lagun-bat-atxilotu-dute>

<https://eh.lahaine.org/otxantegi-herri-lurra-hustu-du>